

altza-herrera

auzotarren hezkuntza maila hobetzeko informazioa banatuko duen zentrua ireki berri da Larratxon. Altza, Larratxo, Herrera eta Bidebieta auzoetan bizi den jendearen hezkuntza mailak gabezia handiak dituela eta, horrek lana bilatzeko orduan eragin ditzakeen arazoak aztergai izan ditu behin baino gehiagotan Karitas Elkarteak. Hori dela eta, lan bila dabilen jendeari laguntza eskaintzeko xedez, Gipuzkoako lehen «Norabide» zentrua finkatu du Larratxon Karitasek.


Aitor San Jose izan da Larratxoko «Norabide» zentruaren sortzailea. Bera Karitas Elkartearen gazteri saileko koordinatzailea izan da eta Bilbon dauden «Norabide» zentruen arrakasta ezagutzen zuen, horrexegatik, pentsatu zuen esperientzia hauek donostiaratzea.

Bulegoa martxan

Laguntzaile bolondres talde bat bildu eta martxan jarri zuten astelehenetik ostegunera arratsaldeko 18.30etatik 20.00etara irekita dagoen bulegoa.

Bikoteka, lanerako prest agertu diren 10

«Norabide» langabetuen formazioaren alde



laguntzaile hauek, «Norabide» zentrua hurbiltzen diren auzokideei instituzioek Lanbide Heziketa Zentruetan antolatutako ikastaroen informazioa

zabaldu eta argituko diete.

Asier Altube, Ainhoa Ona, Aitor San Jose, Elena Perez, Idoia Azpilikueta, Isabel Martija, Juan Manuel Martija, Mari Jose

Goñi eta Rocío Otxoa, 40 03 45 telefonoan izango dira Bertsolari Txirrita kaleko 2. zenbakiko behealdean edonoren zalantzak argitzeko eta beharrezko aholkuak emateko prest.

Formazioa eskaintzen da, ez lana

«Norabide» ez da lana aurkitzen duen zentrua, ez da enplegu bulegoa. Bertako helburu nagusia langabetuen egoera eta animoa hobetzen laguntzea eta langabetu horren formazio maila hobetzea da. Beraz, bulego honen ekintza garrantzitsuena ikastaro egokiak bilatzea eta jendea espezializaziora bultzatzea da.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 39 12 67)

ARGAZKIA: ROXALI FERNANDEZ

Soul Street Herrerako blues taldeak eguberriko kontzertu zirkuitoa amaitu ondoren, antolatua du negu zirkuitoa. Honela, ostiralean, hilaren 27an, Amara Zaharreko «La Gatera» tabernan arituko dira Txemari, Javi, Igor eta Antonio Soul Street talde honetako partaideak.

Donostiako Lanbide Hastapen Ikastetxea Bidebietan aspalditxo martxan jarritako zentrua dugu. Duela gutxi hasiak dira bere arduradunak kanpoaldeari beste itxura bat ematen, hain zuzen, praktika moduan, bertako ikasleak eraikuntza konpondu eta berritzeari ekin diote. Ikastetxe hau lehen «kontadores» bezala ezagutu genuen, Lanbide Ikastetxe zelarik, krisi garaiarekin bertan behera geratu zena alegia.

Ezeiza ETXEA

TOLOSAKO EZEIZA TEILA ETA ZIGARROTXOAK

P. Gorosabel, 34
Tfnoa.: 65 51 61

San Francisco, 8
Tfnoa.: 65 19 16

Hontza
LIBURUDENDA

OKENDO KALEA 4 • Tfnoa.: 42 82 89